

BERRI OROKORRAK

2025eko urriaren 3an

4. zenbakia

Ikasketa-beka

Astlehenean amaituko da 2025/2026 ikasturterako Eusko Jaurlaritzak bideratzen duen beka eskatzeko epea.

Baita Udarregi Ikastolak bere bazkideei eskaintzen dien beka-sistema propioaren eskaera egiteko epea ere.



Eskola-kirola

Zirimara familia (0 eta 5 urte bitarte), Zirimara LH1-4 eta Zirimara LH5-6 multikiroleko eskaintzetan izena eman dutenek, Oiarde kiroldegira **sarrera nagusitik** sartuko dira eta kirol-txartela edo bazkide **txartela** **tornotik pasako** dute.



Kilometroak 2025

Igande honetan Elgoibarren Kilometroak 2025 ospatuko da. Animatu, bertaratu eta festaz gozatu!



Palestinaren aldeko ekintzak

❖ Ostegunetan mobilizazioak ikastetxe guztietan

“Hezkuntza komunitatea Palestinarekin! Genozidioa STOP!”

Gure haurrak ere badira ekimenetik Hezkuntza komunitate osoa (langileak, ikasleak eta familiak) gonbidatu nahi dugu ostegunero Palestina pairatzen ari den genozidioa salatzen kontzentrazioak bultzatzera.

Ostegunero, **Agerialdeko patioan 16.30ean** elkartuko gara, urriak 2an hasita. Oraingoan 3 astez luzatuko da ekimena.



❖ Zapatzen bilketa

Ikasturte honetan **Gure Haurrak ere Badira**-k deituta, EHko ikastetxe guztietan egingo den Palestinaren aldeko ekimen bat prestatzen gabiltza. Horretarako ehunka zapata zahar behar ditugu eta etxean jada erabiltzen ez dituzuen horiek ekartzeko deia egiten dizuegu. **Pareak bere sokarekin edo brida txiki batzuekin lotuak ekarri, mesedez.** Ikastetxeko sarreretan jasoko ditugu. Aurrerantzean, zapata guzti hauek, Gure Haurrak ere Badira ekimenetan erabili ahal izango ditugu. Bilketa urriaren 17a bitarte egingo da.

❖ Kamiseta elkartasun keinu gisa

Gure Haurrak ere Badira-k kamiseta bat aterako du eta ostegunero izango diren elkartasun egunetan jatzeko deia egiten du.

HAUR-HEZKUNTZA

Zorriak

HH3-ko eta HH4-ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu. Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIAU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



Guraso-bilerak

Bilera orokorretako datak honako hauek izango dira:

HH4: Urriak 7, asteartea.

HH5: Urriak 8, asteazkena.

Bilerak, ikasleen gelatan egingo ditugu, 16:45etan. Bileretan azalduko den informazioaren txostena Alexia bidez bideratuko da.

Ez da zaintza zerbitzurik eskainiko.



LEHEN HEZKUNTZA

Irteerak

LH3. mailakoak irteerara goaz!!

Eguraldiak lagunduko balu, asteazkenean, egun osoko irteera egingo dugu, herrian zehar. Betiko moduan, ura, hamaiketakoa eta bazkaria ekarri beharko dute. Arropa eroso eta oinez ibiltzeko oinetako egokiak jantzita etor daitezela. Behar izanez gero, eguzkitako krema emanda eta bisera jantzita etortzea gomendatzen dugu.



LH 4ko ikasleen irteera.

Hurrengo astean Aginagara egun osoko irteera egingo dugu. Eguraldiaren baitan hurrengo astean, zuen seme-alabei jakinaraziko diegu zein egunetan egingo dugun irteera.

DBH

Guraso-bilerak

Bilera orokorretako datak honako hauek izango dira:

DBH3: Urriak 6, astelehena.

DBH4: Urriak 7, asteartea.

Bilerak, DBH-ko eraikin gorrian egingo ditugu, 17:00etan. Bileretan azalduko den informazioaren txostena Alexia bidez bideratuko da.



“Zer egin menpekotasunaren aurrean (alkohola, mugikorrak, jokoa...) guraso bezala?”

Urriaren 13an, astelehena, DBHko guraso zaretenontzat, aipatutako gai honen inguruan hitz egingo duen aditu bat izango dugu gure artean, **IZAR ARREGI**. Gaia interesatzen zaizuen guztiak gonbidatuta zaudete. Guraso bezala dituzuen kezkak aditu bati esposatzeko/galdetzeko... aukera izango duzue bertan.



Data: Urriak 13, astelehena.

Ordua: 17:00etatik 19:00etara (gutxi gora-behera)

Lekua: DBHko eraikina

*OHARRA: gutxieneko parte-hartzaile kopurua behar da, beraz, interesa baduzu, bete mesedez [galdetegi hau](#)